

## 2012 IX FIBROMIALGIAREN ETA NEKE KRONIKOAREN

### Fibromialgiaren eta neke kronikoaren IX. Manifestua

Urtero bezala, fibromialgia eta neke kronikoa pairatzen dugun gaixoek gure **egun handia** ospatzen dugu.

Orain dela 20 urte Munduko Osasun erakundeak **IZENA** eta **KODIFIKAZIOA** eman zigun.

Baina, urte bat gehiago, gaur ezin izango ditugu ospakizunaren kandelak amatatu oraindik askorentzat **EZ** gara **EXISTITZEN** badakigulako.

Eta, horregatik, gaur **SOLIDARITATEAREN KANDELA** piztuta mantentzeko konpromezua hartzen dugu, gaixotasun hauen **NORMALKUNTZA** lortu arte; **SENTIKORTASUN KIMIKO ANIZKUNA** duten pertsonenganako solidaritatea handiagotuz.

**SOLIDARITATEAREN KANDELA** piztuta mantentzea, urte hauetan guztietan jasotzen joan garen lemak direla eta; hala nola,

- \* Gehien mintzen gaituen mina **ULERTEZINTASUNA** da.
- \*Gaixotasunak ez dauka **NAZIOTASUNIK**.
- \*Ez gara **IKUSTEZINAK** eta **DUINTASUNA** daukagu.
- \***GIZARTE BOLONDRESTASUNETIK** abiatuta borrokatzen dugu.
- \*Gure osasunaren **ERANTZUNKIDE** izan nahi dugu.
- \***SENDATU** eta **LAN EGIN** nahi dugu edo **BIDEZKO ELBARRITASUN LAGUNTZAK** eduki.
- \*Ikertzaile eta profesional askoren **SOLIDARITATEA** eskertzen dugu.

**SOLIDARITATEAREN KANDELA** piztuta mantentzea...

...ulerkuntza sozial, profesional, erakundeetakoa eta familiar handiagoa edukitzeko.

...urte hauetan guztietan lortu duguna gogoratzeko eta oraindik ukatzen zaiguna lortzeko.

...eskubide osoko hiritar sentitzeko.

...2011ko manifestuko puntuak lortzeko, gaur egun indarrean jarraitzen dutenak; honako hauek direla:

-fibromialgia eta fatiga kronikoaren sindromea pairatzen duten gaixoen

**SARRERA UNIBERTSALA** Osasun Sistema Publiko eta Sozialean eta komunitate autonomo guztietan sistemaren **KALITATEA** eta **EGOKITASUNA** bermatzea. Hau lortzeko asmoa dago diagnostiko, tratamendu eta prebentzio protokolo bakarren, elbarritasunen ebaluazio irizpideen, lanean txertatzeko neurrien eta gizarte-zerbitzuetarako eskubideen bidez.

-gizarte politikaren eta sanitarioaren planifikazioan eta aplikazio planetan **ERANTZUNKIDETASUNA** bermatzea.

-gaixoen elkartean **ERREPRESENTAGARRITASUNA** eta euren gizarte-lanaren **ESTIMAZIOA** bermatzea.

-**IKERKETA** publikoa eta ikerketa pribatuaren sustapena bermatzea, jatorria aurkitzeko, tratamenduak hobetzeko eta gaixotasunak aurreikusteko helburuarekin.

-gaixoekiko, gure familiekiko eta arreta hobea eskaintzeko lan egiten duten profesionalakiko **ERRESPETUA** bermatzea.

2012 urte honetan, gure familiekin, erakundeekin eta federazioekin batera, orain arte erdietsitako lorpenak azpimarratu nahi ditugu eta oraindik existitzen diren ezberdintasunak eta bidegabekeriak salatu. Bestalde, Ongizate Egoera mehatxatzen duen krisialdi honetan gaixo guztiekin bat egiten dugu eta guztiontzako osasun bidezkoa eskatzen dugu.

**SOLIDARITATEAREN KANDELA** piztuta mantetzen dugu zer nolako lizunkeria errepresentatzen duen bazterketa egoerak sortzeak edo eta mantentzeak gogoratzeko, are gehiago pertsona ahula edo sentibera denean: **osasuna galtzen duenean**, egunen baten **berreskuratu** ahal izango duen ez dakienean, eta egoera pertsonalean, familiarrean eta ekonomikoan ikerketa epidemiologikoak (EPIFFAC) demostratzen duen moduan **eragiten** dionean.

2012ko maiatzaren 12- Fibromialgiaren eta neke kronikoaren egun handia